



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

MATRIKULAZIO-PROZESUA: KIROL IRAKASKUNTZAK



BERARIAZKO SARBIDE-PROBETAN EZ ONARTUA IZATEAREN AURREAN ERREKLAMAZIO-PROZESUA

Epaimahaiak hartutako erabakiaren aurrean, erreklamazio bat aurkeztu ahal da, beti Administrazioari egotzi dakizkiokeen arrazoiak baleude, hau da, eskabidearen izapidetzan akatsaren bat egonez gero.

Aipaturiko erreklamazio-eskabidea Epaimahaiburuari zuzendu behar zaio, behin-behineko onartuen zerrenda argitaratu eta 48 orduko epearen barruan, eta KIROLENEko idazkaritzan (San Inazio auzunea 5, 48200 Durango-Bizkaia), ondo beteta eta sinatuta, aurkeztu behar da edo bestela posta ziurtatuz bidali. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 38. Artikuluan aurreikusitako beste edozein prozeduraren bidez ere aurkeztu ahal dira.

Nolanahi ere, ESKATUTAKO AGIRI GUZTIAK DITUZTEN ETA BEHAR BEZALA BETETA DAUDEN ESKABIDEAK BAINO EZ DIRA ONARTUKO.

Behin erreklamazioa onartuta, Epaimahaiak, alde zurretik zehaztutako epean eta eran, aurkeztutako erreklamazioari buruzko erabakia hartuko du eta interesdunari jakinaraziko dio.

OHARRA.- Ez dira faxez edo posta elektronikoz bidalitako eskabideak onartu